



## 591 kilometro errefuxiatuen alde

### Asilo-eskubidea oinarrizko eskubidea da

1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ezarritakoaren arabera, *jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea (14. artikulua).*

### Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du babesa izateko eskubidea

Errefuxiatutzat jotzen da arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarpena pairatzeko beldur izateko arrazoiak dituen pertsona oro. Asilo-eskubideak barnean hartzen dituen jazarpen-arrazoietakoa bat da genero-arrazoiengatikoa jazarpena.

### Herrialde seguru batera iristea indarkeria tartean duen oztopo-lasterketa da

Herrialde seguru batera iristea da asiloak ematen duen babesa izateko lehenengo urratsa. Horrek berekin dakar norberaren sorterritik joatea, militaritutako mugetatik igarotzea, tramite diskriminatzaileetatik bizirik irtetea, bai eta basamortutik, itsasotik eta alanbre-sareetatik ere. Gaur egun, hori lortzeak esan nahi du herrialde-batasun oso bati borroka irabaztea. Izan ere, herrialde horiek giza baliabide eta baliabide material eta militar mordoa inbertitu dute jendeari sorterritik irteten ez uzteko politika zentzugabeetan. Eta irteten badira, bidean geratzeko; eta, iristen badira, bueltan bidaliak izateko.

Europa, ordea, itsuturik dago segurtasun-politikekin eta arauz kanpoko immigrazioaren kontrako borrokarekin. Hori dela-eta, Europak bere mugak blokeatu ditu, dispositibo militar eta polizial handi baten bitartez. Eta, horren ondorioz, nazioarteko babesaren beharra duten pertsonak zailtasunak dituzte etortzeko, eta ihes egitea beste indarkeria-modu bat bihurtu du. *Europa gotorlekuaren* errepresio-zirkuitua, gainera, gero eta sendago bihurtzen da Frontex<sup>1</sup> agentziaren zabaltzearen, iragaiteko herrialdeekin izenpetutako akordioen, beste herrialde batzuetan ezarritako atxiloteta-zentroen eta abarren ondorioz.

---

<sup>1</sup> EBko estatu kideetako kanpo-mugetan lankidetzat operatiboaren kudeaketarako Europar Agentzia.

Espainiar estatuak, Europako *Hegoaldeko muga* den aldetik, migrazio-fluxuen *kontrol-sistema* bat garatu du, bere jurisdikzioa estatuko lurraldearen mugetatik harago eramaten duena; horrenbestez, nazioarteko uretan eta iragaiteko herrialdeetan jarduten du, eta akordioak egiten ditu jatorriko herrialdeekin, haien kostaldeetatik irteten diren pertsonak kontrola ditzaten.

**Pertsona bat bera ere ez da itzularazi behar herrialde batera, baldin haren bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan egongo bada bertan**

Nazioarteko Zuzenbideak debeku bat ezartzen die estatuei: ezin dute kanporatu edo itzularazi pertsona bat herrialde bateko lurraldera, baldin eta hartan haren bizitza edo askatasuna arriskuan badago, edo tortura, tratu gizagabeak nahiz iraingarriak edo giza eskubideen beste urraketa batzuk jasan baditzake.

Ez itzularaztearen funtsezko printzipio horretan oinarritzen da, hain justu, asilo-eskubidea. Printzipio hori ez betetzeak nazioarteko babeserako inolako bermerik gabe uzten ditu errefuxiatuak.

Gaur egun Espainiara iristea lortzen duten pertsona asko errefuxiatu izan daitezke baina, hala ere, ez dute babesik.

Indarkeriatik ihes egiten dute, eta gero, bertara itzularazten dituzte. Egoera gero eta gogorragoa da, eta indarkeria, gero eta ohikoagoa. Gure ardura da horren berri jakitea eta aurre egitea.